

Antxiñako fotografixia



Goribargoittiko edurzulua

Gaurko honetan dakargun argazkixa benetan kuriosua da. Larogeitasei urte dako eta aspaldi gastau zan lanbidia erakusten dosku: **edurbatzeia**. Historia-liburuetan irakurri dogu, garai batian —izotz-fabrikarik eta frigorifokorik etzarian— hartarako egozen zulo apropos batzuetan gordeten zala edurra neguan, eta uda-partian kaleraño karriaitten zala ahal zan moduan: burdittan, mando gaiñian edo bizkarka. Gabaz edo goizian-goiz egin biharko zan karriua, bestela izotz gehixena bidetan urtuko zan-eta. Oñatin bazan **edurzulo** ezagun bat **Artzanburun**: haitzian, 1.200 metrotik gora eguen eta, emuten dauenez, muga-mugan; izan be, edurrori zala-eta, Zegama eta Segurakuakin karramarra gogorra euki ebein oñatiarrak 1762.urtian. Azkenian Arantzazuko frailliak egin bihar izan zittuain bakiak.

Ezkenkixena zera zan: kale inguruan be edurzulua eguenik. Bai, itxuria daguenez. Fotografixan ikusten dogun kuadrilliak **Goribargoitti** baserriko etxeostian jardun eben 1910ian edurra pillatu, batu, burdixan kargau, inguruan zan edurzulora eruan eta han ondo sakaketan, hurrengo udan refreskuak edo sorbetiak egitteko, nahikua izotz euki egixen. Kanpora be saltzen zan, jakiña: konfitterixetara eta botiketara, batez be. Argazkixan agerketan diranak Goribar auzokuak ei dira. Batzuk Goribargoitti bertakuk: **Frantziska Leanizbarrutia** eta **Esteban Leanizbarrutia** anai-arrebak; **Kaittana Aranburu** — **Santa Kataliñakua** jatorriz eta Estebanen andria zana— eta **Pedro Aranburu**, hau be Santa Katalindarra seguruenik; gaiñera, **Jose Joakin Lizaur**, **Goribar Zaharreku**-edo, eta **Anjeles Zulueta**. Beste izenik eztakigu oraingoz, baiña norbaittek besteren bat ezagutuko baleu, jakin eragin deigula, eta pozik eskertuko geunskio. Esan daigun, azkenik, edurzulo hau orain dala urte gutxi galdu zala, Urrutxuko sakonunia eskonbrerako lurrez eta zakarrez bete zanian.

J. E.

Fotografixia eta argibidiak
Jesus Mari Ugarterenak dira.

VICTOR FREIRE e HIJOS

Igeltzeritza

• Erreformak orokorrean • Teilatu eta fatxaden
konponketak • Biltegia berezaon

Errekalde 22, Ezk. OÑATI Tfnoa: 78 07 69



URTIXIN Loradenda

Lora
•
Landare
•
Keramika
•••
Portu Kalea
Tel: 78 22 41